


EUSKAL HERRIKO ZUBIAK

Gure lehen gizonak, erreka igarotzeko, ihartuta eroritako zubaitz baten enborra erabili zuenetik, gure arkitekturak, batic bat erromatarren ikasbideei jarraituz, hainbat eta hainbat eraikin jaso ditu, gure ibaiak edertu eta dastatuz, bide berrien ate izan zitezene.. Zenbat herrialde elkartu ote dituzte gure zubiak, harreman horiei harri eta urezko korapilorik ederrenak jarriaz! Zenbat erromesi eta etorkini zabaldu ote diote gureganako bidea, eskuak zabalduko balizkieke bezala! Zenbat aberastasun garraiatzeko bide izan ote dira!

Euskal Herriko zubien barietatea handia da noski. Errekak zeharkatzeko egindako pasagune apalenetik hasi eta nortasun galantez jantziriko zubirik garrantzitsueneraino, mendeetan zehar era, estilo eta material guztiekin egindako hainbat ale ditugu. Harri bakarreko landa-pasabideak, soketatik zintzilikatuta kili-kolo dauden pasagune beldurkorrak, harri landuz egindako eraikin bikainak, arku dotorez hornitutako zubi txairoak, puntako teknologiak erabiliz jasotako eraikuntzak...

Horien denen eredu, estilo eta tipo guztiek islatu nahian, dozena bat zubi aukeratu ditut, alegia begien aurrean dituzun hauek.

Zubia komunikazioa bada, ingurukoekin harremanetan jartzeko erakutsi diezagutela; zubia bide berriak urratzea ba da, etorkizuna arakatzen jakin dezagula; zubia oztopoak gainditzea bada, gure etsaien gainetik aurrera joan gaitezela; zubia ur bizigarriarekin topo egitea bada, bizi berri baten bataioa izan dadila.



1.- Oñatiko Kortabarriko zubia (Gipuzkoa).

Harriak eta urak norabide desberdinak ote daramazkite? Ala sendotasuna eta dinamika, tinkotasuna eta mugikortasuna elkartzen ote dira naturaren erdian?


Julio Nuñezek dioenez, ahozko tradizio baten arabera, hiru idi parek leherrenak egin behar izan zituzten pasarela honetarako pieza bakarreko lauza bat garraiatu ahal izateko. Zubiaren argiak 3,8 metro hartzen ditu. Zubia komunikazioa izanik, hemen ikusten dugun hau paisaiaren bi alderdien besarkada bat da.



2.- Burgiko zubia (Nafarroa), Ezka ibaian. Erromatarra.

Behin batean erromatarra etorri zen bere loriga eta guzti. Ezka ibaia zeharkatu, eta... kulturaz beteriko zubi bat utzi zingun.


Zubi bikain hau ibaiaren alde batera makurturik dagoela ematen du, bidaiariei pasabidea errazteko. Arkuen bihurgune ederrak, berriz, bere magalera biltzen du ur lasterra. Zubiak mende luzez ikusi ditu almadiak ibaian behera jaisten.



3.- Bilodako zubia (Araba). Zadorra ibaian.

Erromatarrek zubi bikain hau ibaiko urak bidesaria ordaindu zezan eraiki omen zuten.


Harrizko zubi bikaina. Erromatarrek egina dela uste da. Iruñako oppidumerako sarrera gisa erabiltzen zen. Erdi Aroan aldaketa handiak egin zizkioten, eta horien ondorioz hasieran zeukan itxura galdu egin zuen. Hamar arku ditu: arku batzuk zorrotzak dira eta beste batzuk erdi puntukoak.



4.- Garesko zubia (Nafarroa), Arga ibaian. Erromanikoa, XI. mendekoa.

Urak zubi izan nahi zuen, eta zubi bihurtu zen. Ibaiak ortzi izan nahi zuen, eta ortzi bihurtu zen.

Oso leku garrantzitsua izan da Done Jakueren Bidean. Bere sei arkuek, horma-bularren gainean egindako leihoekin, garai bateko zubiaren edertasun paregabea dute oraindik. Bi osagai bakarrik falta zaizkio zubiari: dorre txiki bat (erromesek, azpitik igarotzean, bidesaria ordaindu behar zuten) eta txoritxo baten irudia; kondairak dioenez, txoriak ibaiko uretan bustitzen omen zituen hegoak eta gero Ama Birjinaren irudia freskatu eta garbitzen zuen haietxekin.



5.- Balmedakoa zubi zaharra edo “de la Muza” izenekoa (Bizkaia), Kadagua ibaian. Erromanikoa, XII-XIII. m.

Zubia harremana baldin bada, nork ezarri dizkio mugak zubiari?


Zubi eder honetan ageri diren hargintza-aztarna ugariak haren jatorri erromanikoa erakusten digute. Erromatarren garaitik, lautadaren eta kantauri aldeko portuen arteko elkargunea izan zen. Zubian dorretxea ageri da nagusi, 1450. urtean eraikia. Euskadiko Monumentu Nazionala izendatu dute.



**6.- Sorgin-zubia. Andoain (Gipuzkoa). Leizaran ibaia.
Barrokoa, XVIII. mendekoa.**

*Sorginek armiarma-sareak egin zituzten landaretza zubia-
ren arkuei itsatsiz.*


Zubi honen arkitektura deigarria, teknologia mailan, tradi-
ziozko joeraren eta XIX. mendeko joera berrien arteko erai-
kuntza-soluzioen eredu da. Hala ere, urteetan zehar paisaiare-
kin bat egin du eta orain biek nortasun bakar bat eskaintzen
digute.



**7.- Anunzibaiko zubia.- Laudio (Araba) - Orozko (Bizkaia),
Nerbioi ibaia.- 1741. urtea.**

*Zorioneko helburura iristeko lehoiekin borrokatu, bizitzako
ibaia igaro eta guruzpeko arkutik pasa behar da*


Lehoien zubia ere deitu izan zaio. Orozko eta Laudioko udalerrien elkargunea da. Laudioko partean bi lehoi ageri dira eta Orozko aldeko sarreran, berriz, portada eder bat, kalbario batez eta eskultura ederrez osatua, arkupe tenplarioak gogorazten dituena. Hain toki estrategikoan egonik, zubi honek garai bateko erlijio-borrokak eta dorretxeen arteko gerrak ekaritzen dizkigu gogora.



8.- Debako zubia. Deba ibaian. 1866.

Ate horietatik zein sartzen da? Itsasoa lurraldera ala ibaia itsasora?


Iragan mendearen bigarren erdialdeko arkitekturaren obrarik adierazgarriena da. Kareharri zurizko harlanduen zuritasuna, bihurguneen leuntasun eta dotoretasuna eta errekako urekin bat egiten duen egitura ederra kontuan izanik, esan liteke zubi hau ikuskizun paregabea dela begien gozamenerako.



9.- Bizkaiko zubia. Portugalete. Ibaizabal ibaian. 1893

Teknologiak uraren bidea saihestu du: Burni eta uraren arteko ulertezina.


Ibilgailuak eta bidaiariak ibaiaren alde batetik bestera daratuzan 45 m.ko altuerako zubi honen silueta nagusi ageri da itsasadarraren sarreran, Areta eta Portugalete artean. Eiffelek penintsulan zuen dizipulu aurreratuenak eraiki zuen, Alberto de Palaciok hain zuzen. 1937an dinamitatu egin zuten, Bilbo menpean hartu baino lehenago. Aracil ingeniariak berriro eraiki zuen 194lean. Eraikuntzan erabiltzen hasi ziren teknologia berrien eredutzat har dezakegu.



10.- Maria Cristinaren zubia. Donostia. Urumea ibaia.

Zubien dohaina, amildegiaz abazturik, zerua ukitzea da.


1903tik 1905era bitartean eraiki zen, eta haren eraikuntzan hormigoi armatua erabili zen lehen aldiz, –1985ean erabat berritu zuten. 18 metroko altuera duten lau obelisko ditu, eta horien gainean Bakea eta Aurrerapena irudikatzen duten hainbat eskultura; bestalde, piletako erremateek ontzi-branken itxura hartzen dute, zeramika ederrak ditu, eta barandak, farolak eta zenbait eskultura burdin urtuaz eginak dira. Horrek guztiak monumentaltasuna eta erromantizismo kutsu nabaria ematen dio zubiari.



11. Zubizuri zubia. Bilbo. Ibaizabal ibaian. 1997-5-29.

Ibaiaren bi ertzen arteko harremanak lotzeko hari txuriz egindako korapiloa bitxikeria biburtu zaigu.

Santiago Calatravaren oinezkoentzako pasabide hau, iragan mendearen amaierako arkitektura-abangoardiaren eredu ederra dugu; eraikuntza osatzen duten elementuek, berez duten eginkizunetik haratago, nortasun berezia ematen diote obrari. Eraikuntzako elementuen arteko oreka indartsuak oso irudi dinamikoa sortarazten du, eta horretan zubia ibaitik bertatik abiatuak hegaldatzen da.



12.- Mantibleko zubia.- Assa. Araba. Erromatarra

*Zubia txunditu da. Bi izakien arteko besarkada hautsi da.
Bi bakardade tristek bakarrik diraute.*

K.o. 11. mendean eraiki bide zen. Landaretzan hondoraturiko bi lekuko bakartiren antzera ageri zaizkigu garai bateko zubiaren hondakinak, jatorrian zituen zazpi arkuetatik bi besterik ez baitira geratu. Antzinako zubiak 150 m.tik gorako luzera zuen, eta harlandu ederrez egina zegoen.

Juan Mari Arrizabalaga